



## PROPOSAMENAK, KONTSUMOAREN IKUSPEGITIK

Gutariko bakoitzak kontsumitzaile gisa dugun boterea erabil dezakegu gatazkari gabeko teknologia lortzearen alde. Baina geure buruari galdetu diezaiokegu: Zer paper jokutzen dugu kontsumo-gizarte honetan? Nola balia ditzakegu gure ohiturak, jardunbideak, erosketak... mundu globalizatuaren errealitatean eta, zehazki, teknologian eragiteko?

Egile batzuek, hala nola Adela Cortinak, “**hiritar kontsumitzaileez**” hitz egiten digute, eta planteatzen digute “erosketa-ekintza bakoitza boto bat dela”. Are gehiago, ez bakarrik erosten duguna, baizik eta baita nola erosten dugun edo ez dugun erosten, politika-adierazpen bat bihurtzen da. Hau da, zerbait erostea edo ez erostea erabakitzen dugun bakoitzean, zehazki zer, non edo nori erosi erabakitzen dugun bakoitzean, mezuak bidaltzen ari gara, eta horiek konfiguratzen dute mundua era batera edo bestera.

*Proposamen zehatzak aztertu aurretik, zehaztu behar dugu zer den **kontsumo kontziente eta eraldatzaile hori**. CRIC (Kontsumo Ikerketa eta Informaziorako Zentroa) elkarteak bi premisa planteatzen ditu, eta gu haiekin bat gatoz erabat.*

Kontsumoa kontzientea eta eraldatzailea izan dadin, lehenik eta behin, gutxiago kontsumitu behar dugu, eta, bigarrenik, informazioa bildu behar dugu azkenean erosten edo kontsumitzen dugun hori ahalik eta errespetuzkoena eta jasangarriena izan dadin, bai ingurumenarekiko, bai gizartearekiko. Bi kontzeptu hauetan sakondu nahi al duzu?

1.-

### GUTXIAGO KONTSUMITU ETA BEHAR DUGUNA KONTSUMITU

Zerbait erosi aurretik geure buruari galdetu behar diogu ea beharrezkoa dugun ala ez. Produktu bat aldatu edo kontsumitu aurretik, pentsa dezagun ea beharrezko dugun. Funtzionatzen ez badu, ikusi beharko da ea konpon daitekeen, edo gure gailu elektronikoei nola irauz dezaketen gehiago behar bezala erabilia eta zainduta. Beste aukera bat da balio ez duten piezak aldatzea.

2.-

### GIZARTEA ETA INGURUMENA AINTZAT HARTUTA KONTSUMITZEA

Gailuren bat ez erosteko aukera baztertzen bada, eta, beraz, erosi egin behar badugu, planetarekiko eta bertan bizi garenekiko aukera ahalik eta errespetuzkoenak bilatu beharko genituzke. Gailu elektronikoei dagokienez, bigarren eskuko gailuen alde egin dezakegu, edo bilatu ditzakegu iraunkortasun handiagoa bermatzen diguten gailuak (adibidez, gailu modularrak, hala nola Project Ara; konpontzeko ordezeko piezak dituztenak, hala nola Fairphone), toxikoak ez diren elementuak dituztenak (ikus Greenpeacearen elektronikako zerrenda) edo pertsonen laneko eskubideak errespetatuz ekoitzi direnak (ikus Make It Fair kanpainak, edo Enough Project gatazka mineralen gairako). Interesgarria da, orobat, enpresa ekoizlearen politikei eta estrategiei buruzko informazioa biltzea, baita telefonia mugikorraren enpresen politikari buruz ere, iraunkortasun-konpromisoarekin lotutako mugikorrak erosteko eta aldatzeko estrategiari dagokionez.

Azkenik (e-waste edo zabor elektronikoa fitxan zabaltzen da informazioa), mugikorra birzikla dezakegu bigarren bizitza bat emateko edo, gutxienez, behar bezala prozesatuz eta kudeatuz arazo handiagorik ez eragiteko. Beste aukera bat, zure mugikor zaharra GGKE erakunde bati ematea da, bertatik ateratakoa kontsumismo honen ondorioak arintzen lagunduko duten proiektuei zuzentzeko.



# ARIKETA-PROPOSAMENA

## EROSKETA INDIBIDUALAREN ETA KOLEKTIBOAREN DEKALOGOA



**Garapena:** Egin mugikor baten erosketa arduratsuaren dekalogo (beste produktu teknologiko batena ere izan liteke).

Taldean egitea proposatzen dizuegu; adibidez, norberak 10 minutu hartzea bere dekalogo egiteko, eta, gero, taldearena adostea.

**Kafe-tarte edo festa bat konponketak egiteko:** Pertsona edo talde ausartenentzako beste aukera bat da kafe-tarte edo festa bat antolatzea konponketak egiteko. Ifixit edo Restart Project-en orrietan aurkitu dezakezue laguntza eta gidak... Eta ez ahaztu; bidaliezazkiguzue argazkiak eta kontaiezazguzue nola joan den dena....



## INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BITARTEKOAK

 **IFixit** webgunea: [www.ifixit.com](http://www.ifixit.com)

 **"The Restart Project"** webgunea: <http://therestartproject.org/about/>

 **"OPCIONES"** aldizkariko 29, 32 eta 33 zenbakiak:

<http://opcions.org/sites/default/files/revistas/29castwb.pdf>

[http://opcions.org/sites/default/files/revistas/o32\\_cast.pdf](http://opcions.org/sites/default/files/revistas/o32_cast.pdf)

[http://opcions.org/sites/default/files/revistas/opcions33castellano\\_web.pdf](http://opcions.org/sites/default/files/revistas/opcions33castellano_web.pdf)

 **Mugikor berria eta doanekoa? Ez, eskerrik asko:**

[http://www.cristianismeijusticia.net/sites/default/files/pap179\\_0.pdf](http://www.cristianismeijusticia.net/sites/default/files/pap179_0.pdf)

 **"Gauzen historia" serieko Elektronikaren bideoa:**

[https://www.youtube.com/watch?v=sW\\_7i6T\\_H78](https://www.youtube.com/watch?v=sW_7i6T_H78)

**Mugikorren enpresen rankinga**

 **Greenpeace:**

<http://www.greenpeace.org/international/en/campaigns/climate-change/cool-it/Campaign-analysis/Guide-to-Greener-Electronics/>

 **ENOUGH:** <http://www.raisehopeforcongo.org/content/conflict-minerals-company-rankings>

 **HighTech:** <http://www.hightech-rating.ch/>



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa  
[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

-en proiektu bat



lortzeagatik

[www.gatazkarikgabekoteknologia.org](http://www.gatazkarikgabekoteknologia.org)